

ZER BIZITZA ERDIGUNEAN EUSKAL HERRIAN?



JUNKAL ARRUTI TENA ETA LETICIA URRETABIZKAIA GIL
EKOFEMINISMOA EDO HERIOTZA

2023aren amaieran, ekofeminismoaren erronken barruan, giza-kien arteko pribilegioei buruzko eta gizakiz besteko animaliekiko ditugun pribilegioei buruzko artikulu bat idatzi genuen. Harrezkero, Euskal Herriko ekofeminismoen inguruko eztabaidak biltzen dituen liburu kolektibo bat eraikitzeko prozesuan murgilduta gaude eta gogoeta horietan sakontzeko aprobeztatzen gabiltza. Artikulu hone-tan, erronka horiek Euskal Herria ekar-tzean sortzen zaizkigun galderetako bat-zuk partekatuko ditugu, guztiontzako ekofeminismoak eraikitzen lagun dieza-gukeela uste baitugu.

Euskal Herrian ekofeminismoak bertakotu ahal izateko, gure ustez, funtsezkoa da euskal antzinakotasunaren eta kulturaren ikaskuntzak eta praktikak berreskuratzea, baina euskal antzinakotasuna erromantizatu gabe eta menderatze-harremanak ikusezin bihurtu gabe. Alde batetik, kontuan hartzen al dugu zer paper jokatu zuen Euskal Herriak kolonizazio eta esklabismo prozesuetan eta horiek nola irauten duten gaur arte? Zenbat etxek jasotzen dute emakume migratuen egoera administratibo irregularraren onura, gure senideak baldintza prekarioetan zain ditzaten? Nola esku hartzen dugu egoera horietan? Ezagutzen al dugu Atzerritarren Legea, gure analisi eta praktika ekofeministetan dituen ondorioak salatu ahal izateko? Euskal Herriko proiektu energetiko handiak sa-

latzen ditugunean, kontuan hartzen al ditugu Espainiako edo Frantziako estatuen kolonia izan ziren herrialdeek jasotzen dituzten ondorioak?

Bestalde, euskal antzinakotasuna eta kultura animalien ustiapenari lotuta daude erabat. Baserriari lotutako bizimoduan, animaliek bizi kalitate hobea dute, zaintza handiagoa bermatzen zaie, eta abeltzaintza industrialean baino heriotza arinagoak bilatzen dira. Hala ere, berez suposatzen duen indarkeria eta bizirik dirauen ikuspegi antropozentrikoa ikusezin bihurtzeko joera dugu, animaliak baliabide eta ikuskizuntzat hartzen baitira gure praktika eta jai herrikoietan. Ekofeminismoetatik salatzen al ditugu euskal kulturari lotutako animalien ustiapena sustatzen duten praktikak? Gure egunerokoan bertakoa, garaikoa eta agroekologikoaz gain, animalia esplotaziorik gabeko aukerak planteatzen al ditugu? Animalien bizi baldintzak hobetzeaz gain, animaliak subjektu bezala onartu eta edozein motako esplotaziotik at harremantzeko gai ikusten al gara?



ZIORTZA LARREATEGI GOMEZ

Azkenik, nortzuk uste dugu ari direla ekofeminismoak eraikitzen Euskal Herrian? Pertsona eta kolektibo zuriak eta euskaldunak gara ala beste lurralde batzuetatik migratu eta Euskal Herrian bizi direnak ere badira? Animaliak subjektu bezala tratatzen dituzten espazioak (santutegiak eta talde antiespezistak, esaterako), eragile politiko bezala onartzeko prest al gaude? Uste al dugu kolektibo antiespezistak ere ekofeminismoa eraikitzen ari direla? Nola jar ditzakegu erdigunean euskal kultura eta euskara, euskara menderatzen ez duten pertsona migratuak baztertu gabe? Beraz, feminismoetatik bizitzak erdigunean jartzea proposatzen dugunean, noren bizitzak ditugu buruan? ●

A ZE FAUNA!

NARRASEAN NARRASTI ARTEAN



IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADIKO KIDEA

Arre koloreko lurtean aurkitzen da. Arretasunean, harro, narrasean doa. Herrestatuz, narrastia. Soroan sesiorik ez. Segi du sugeak, sigi-saga, sasoi du eta; mahastian eroso sartu da. Seguru. Non-noiz, nora doan jakin nahian; non eta, hemen nago ni. Zelatan, zuri zuzen so, zertan zaren.

Eta etorri da unea. Aurkitu dut gunea. Joango ez zaren bermea.

Mahats hostoen artean, horma zahar baten babesean, kiribildu da: eskailera-sugea.

Olibondo okerrak paisaia irekian, iraganeko memoria gordetzeko. Artadiak, sastrakadi lehorren artean. Labore lur zabalak. Harkaitzak eta mendi bat irmo mantentzen direnak, herri zahar baten babesarako sortua izan bailiran. Araba hegoaldeko eguzkiaren goxoan esnatu da eskailera-sugea, eta badoa, herri txiki bateko kale estuan barrena, bidea berea balitz bezala, horma zahar baten kontra. Liken horiak harrietan itsatsita, marra beltz zuzenak sugearen bizkarrean. Puntuak eta marrak: harri ilun gorri, suge arre beltz. Eta zulo bat, sugeak aukeratu-ko duena, mundu argitsutik ezkutatzeko. Gizakiaren begietatik alde egiteko. Kamera batean gordeta uzteko, uztaileko egun arrunt honetan. Mezu bat herpetologoari: Zer da hau, Iñaki?

Eskailera-sugea. Duelako eskailera formako marrazkia bizkarrean, gaztea denean, batez ere. Eta heldutan, bi marra



IÑAKI SANZ-AZKUE

ESKAILERA SUGEA

Zamenis scalaris

TALDEA: Ornoduna / Narrastia.

NEURRIA: 26,3-160 cm artean.

NON BIZI DA? Sastrakadi mediterraneoan, artadian, horma zaharretan...

ZER JATEN DU? Ugaztun txikiak batez ere, eta hegaztiak.

BABES MAILA: EAEn babestuta dago.

beltz, burutik isatserako bidean, sugearen luzetasunean irristatzen direnak, narrastia lur hondartsuan bezala. Eskailera-sugea, ibiltzen baita horma zaharren inguruan, mahasti, artadi, sastrakadi mediterraneo eta harkaitz artean. Beroa lagun, Euskal Herri hegoaldeko lur lehorrak bere edertasunarekin konkistatzen. Herritik paseo txiki bat eman, eta gizakiak mugikorrarekin jarraitzen duen bitartean, zulo txiki batean labaintzeko. Adio.

Eta ibiltzen baita, badakizu? Enborretan gora, eta pareta lehorretan barrena, lurretik zerura bidean, txori-kumeak dituen habien bila, jaki ederra baita sugegorputz handi bat asetzeko. Asetzen den bezala eskailera-suge bat, normalean, ia beti, ugaztun txikiak janda, lurreko habiazuloetan sartuz gorputz luzea, ehiza ordua duenean. Eskailera-sugea, ehiztaria baita. Ibilean ehizatzen duen ehiztaria, baina egonean egoten badakiena. Ikertzaileen arabera, egon zalea baita, ibili zalea baino. Eta egun zalea, gau zalea baino, udako bero sopen aurrean, ilargipeko lanaldia egiten baldin badaki ere.

Herri txiki bat eskailera-suge batekin, egon litekeena, Nafarroa hegoaldean. Litekeena egon, Araba mediterraneoan. Edota mundu osoa espaziotik begiratu-ko bagenu, litekeena egon Iberiar penintsula mediterraneoan, edo Frantziako ekialdean soilik. Eskailera-sugeak hor baitu bere banaketa, hor bizilekua, Me-

diterraneotik barrena penintsulan sartu eta bertan isolatuta gelditu zenetik. Isolatuta, herri txikiko horma zaharretan zuloan bezala, gizakiak inguratzen duenean mugikor kamera batekin, noiz atera zain. Jakin gabe, sugeak baduela hormaren barne munduaren berri, adarkatzen diren tunel txikien artean gorputz labaintsu bat balitz bezala, ez-katak harrien gainean higitzen dituen bitartean alde egiteko.

Mahasti zaharrek margotzen dute paisaia, eta mahats landare gazteek konkistatu dituzte Arabako Errioxako lur berriak. Bi mahats ale bezala ditu irekiak sugeak begiak. Betazalik gabeko ilargi zoliak. Ardo usaineko lurretan eskaile-ra-suge arreak, eta zintzilik, mahastian, fruitu borobil gorriak. ●

AZERIBUZTANA ADISKIDE



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

satsa edo buztana, lukiaren edo azeria-
ren atzekia ikusten dugu euskaldunok
landare batean (*Equisetum telmateia*).
Luki-buztan, luki-belar, azeri-belar, aze-
ri-isipu, azagari-buztan, oilar-puztan eta
eztainu-belar ere esaten zaio. Inguruko
beste kulturetan ere azeriaren arrastoa
ikusten diote, baina baita beste animalia
askorena ere. Honela esaten diote Astu-
riasek: “raborrocín” zaldibuztan; portu-
gesez “cauda de raposa”, “rabo de cavalo”,
“rabo de touro”, “rabo de cobra” eta “rabo
de rato”, sagu-isats; katalanez “cua de ca-
vall”, “cua d’euga”, “cua de rata” eta “coa de
rossi”; frantsesez “queue de cheval”; ingele-
sez, “horsetail”; gaztelerez “cola de caballo”,
“coda de rata”, “rabo de asno”, “cola de ga-
llo”, “rabo de mula”, “rabo de potro”, “rabo
de lagarto” eta “rabo de zorra”. *Equisetum*
latineko *equa-equus* (behor-zaldi) eta *seta*
(zurda, kima edo grima) hitzetatik dator.

Azeribuztanaren formatik edo eitetik
harantzago, ukimen berezkoa du, zakarra,
litzpaperaren antzekoa. Silize kristalei
zor die latz punttu hori; bere ehuna eta azala
silizez saturatuta daude –landarearen pisu
lehorraren %10-15 silizio dioxidoa da-. Uki
hori dela eta, erabilera bitxietarako berezi
izan da: zurezko eta metalezko piezak
garbitu eta leunduz distira eransteko eta
espartzu gisa harrikoa egiteko. Hortik da-
torkio eztainu-belar izena, gaztelerez ere

“estañera”, “yerba
restañera”, “esco-
billa”, “hierba de
plata” eta “cola
de torneros” diote;
katalanez “estan-
yera”, “aspreta” eta “asprella”; portugesez
“lixa-vegetal”; eta ingelesez “scouring rush”.
Artisautza lanetan aspalditik ezaguna da,
urreztatutako markoak, eskultura polikro-
matuak eta abar leuntzeko. Erreminta edo
lanabesen baten kirtena leundu eta eskura
gozatu nahi duzunerako, eduki jasoa azeri-
buztan lehorra.

Silizea izateak beste balio eder bat ere
eranstean dio: sendagaia da. Makina bat
erabilera badu animalion osagarri gisa; al-
baitariari galdetu, adibidez. Txoko honetako
landareen zaintzan ere badu zereginik: ba-
ratze ekologikoetarako eskuragarri dagoen
fungizida naturalik indartsuena da. Silizea
beira gogortzen duen eta azakalak sendo
egiten dituen minerala da, eta landareetan,
zelula-hormak indartzen ditu, fisikoki zai-
lago egiten ditu onddoen esporak haietan
sartzeko. Edozein intsektu izurritek baino
uzta gehiago suntsitzen dituzten bi gaixo-
tasunak saihesten laguntzen du: mildiu
gorrina eta zurina edo oidioa. Gaitz horiek
erasaten dituzte kuiatxoa (*Cucurbita pepo*
var. pepo), arrosa (*Rosa spp.*), ilarra (*Pisum*
sativum), tomatea (*Solanum lycopersicum*),



JAKOBA ERREKONDO / ARGIA CC BY SA

mahatsondoa (*Vitis vinifera*), sagarrondoa
(*Malus domestica*), marrubia (*Fragaria x*
ananassa) eta beste asko.

Heldu bada azeribuztanari isatsetik. Lan-
darea heldua denean, bildu maiatzetik irai-
lera. 200 gramo berde edo 100 lehor erabili-
ko dugu. Jarri 10 litro euri ur hotzetan, egosi
30 minutuz, irakinaraziz, eta utzi estalita 12
orduz, hozten. Iragazi. Tratatzeke 1:5 pro-
portzioan urardotu (azeribuztan ura litro
bat, bost litro euri ur). Ondo busti landarea,
goi eta behe. Onddoen esporak hostoaren
gainazalean ernetzen dira, eta silizeak ber-
tan egon behar du haiek blokeatzeko. Ihinz-
tatu goizaldean, hostoak lehortu ondoren.
Soluzioa hostoan lehortu behar da, babes-
geruza ikusezin bat osatuz.

Azeribuztana prebentiorako laguna da.
Ez du gaitza sendatuko. Aurrea hartu. Egu-
raldi epelak eta hezetasuna elkartzen diren
ordurako, hasi tratatzen, irail aldera arte.
Hamar bat egunetik behin tratatu, eta, eu-
rite baten ondoren, berritu; babes geruza
berarekin eramaten du.

Giro epela eta hezetasuna hemen ditugu.
Azti ibili. ●

ekologikoa, bizi kalitatea hobetzeko!



Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

Babesleak:



Europar Batasunak
kofinantzatuta



ekolurra.eus

KAMAMILA

BELAR INFUSIO ETA HIDROLATOAK EREDU AGROEKOLOGIKOAN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Bidarrain (Nafarroa Beherea) kokatzen da Cecile Vivanten Kamamila proiektua. 2018an abiatu zuen egitasmoa, kazetaritzaren mundutik laborantzara salto ematea erabaki zuean. “Senarrak eta biok bizikleta bidaia bat egin genuen eta Euskal Herriko hainbat etxaldetan aritu ginen lanean laborariek”, gogoratu du hastapena. Quebec-eko lagun bat belar-biltzaile gisa ari zen lanean lehenagotik, sendabelarrekin infusioak eta antzeko produktuak ekoizten zituen, eta berari esker hasi zen Vivant mundu horretan murgiltzen. Hiru urtez sendabelarren inguruko ikasketak egin zituen Montpellierren (Okzitania, Frantzia), eta senarrak, berriz, nekazaritza ikasketak. “Ikasten ari ginen garai horretan probak egiten hastea erabaki genuen, eta infusioek arrakasta zutela ikusita, ekoizpenean bete-betean sartzea erabaki genuen”, dio. Bidarraiko Migeleneako eta Jauregiako lurretan ari dira lanean.



LANDATUTAKO SENDABELARRAK ETA BASATIAK

Kamamila proiektuan haiek bildu eta ekoiztitako sendabelarrekin eta landareekin egiten dituzte infusio eta hidrolatoak, kanpotik deus ez dute erosten. “50 landare bariatate ekoizten ditugu gure lursailetan eta mendian sei landare basati espezie biltzen ditugu”, azaldu du ekoizleak. Berberna, menda, ezkia, garraiska, osina, ezkaia... nahasketa askotako infusioak egiten dituzte Kamamilan, baita sukalderako aromatikoa, pestoa eta hidrolato desberdinak ere. “Ikuspegi agroekologikoarekin egiten dugulan, arbolak integratu ditugu lursailetan eta

lanaren zati handiena eskuz egiten dugu”, dio. Izan ere, babestutako gune naturalean daude eta ezin dute makina pisutsurik sartu. Traktoerik ez dute, motokultore txiki bat besterik ez.

Lursail koxkorra dute ekoizleek Migelenean, hogeit bat hektareakoa, baina hektarea eta erdi besterik ez dituzte lantzen. “Ez dugu inolako kimikorik erabiltzen baratzean, landareentzako tratamendu naturalak egiten ditugu. Alegia, sendabelarrak darabiltzagu sendabelarrak tratatzeko”, dio barrez. Jauregiako lursailean etxola dute landare lehorgailuarekin, eta bertan egiten dituzte eraldaketak eta nahasketak.

ZUZENKO SALMENTA ETA LABORARIEN SARETZA

Idoki labelaren barruan dago Kamamila proiektua, eta zuzeneko salmenta egiten dute hurbileko denda txiki eta ekologikoean. “Merkatuari ere ibiltzen naiz, batez ere eguberrietan, infusioak opari oso proposa izaten baitira negu parte horretan”, azaldu du. Ahal duen neurrian, nekazari mugimenduetan parte hartzen eta sareta egoten ere saiatzen da Vivant. Hala nola, ELB sindikatuko kide da eta BLE elkartearen parte hartzen du. “Ortzaizen laborariek martxan jarri duten Kaiku Borda denda ere banabil”, gehitu du. ●



Benetan garrantzitsua dena zaintzen
HOBETO BIZITZEKO!

**NAFARROA,
LURRALDE EKOLOGIKOA**

2026





Ezagutu ekoizpen ekologikoaren datuak

www.cpaen.org
www.navarraecologica.org

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

UNIÓN EUROPEA / Europa